

Hernaniko Osoko Bilkurak 2023ko otsailaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

8- BERTATIK ELIKATUZ LANERATZE ENPRESAREN EGITASMOARI DIRU-LAGUNTZA EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.

Hernaniko Udalak interesezkotzat jotzen du BERTATIK ELIKATUZ eta ZABALDUZ GIZARTE EKIMENEN KOOOPERATIBA ELKARTEAK aurkeztu duten Bertatik Elikatuz laneratze enpresa martxan jartzeko egitasmoa, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legeak eta Diru-Laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) aurreikusitakoarekin bat etorritik, egokitzen jo da lankidetzaren hori arautuko duen hitzarmen bat onartzea.

Xedea:

Elikagaien eraldaketa gunea kudeatuko duen laneratze enpresa proiektuaren sustatzea, Hernaniko Elikadura Sistema Iraunkor eta Burujabea eraikitzearen helburu estrategikoaren lan ardatzetako bat izanik.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.

Ikusita, Kontu-hartzailearen txostena.

Ikusita Tokiko Garapen Batzordeak 2023ko otsailaren 27an, besteak beste, gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela hau erabaki da **GEHIENGOZ**

Lehena.- Hernaniko Udala eta Bertatik Elikatuz laneratze enpresaren arteko diru-laguntza hitzarmena onartzea.

Onuraduna: Bertatik Elikatuz laneratze enpresa.

Diru Kopurua: 50.000 €

Aurrekontuko partida: 1.02.471.03.439.00 2023 Kopurua: 50.000,- (AD-252/2023).

Bigarrena.- 2023ko udal aurrekontua eta honen Diru-laguntza eranskina aldatzea. 2023-KALD-000002

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galarazi gabe.

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Bitarteko idazkaria

Hernani, 2023ko otsailaren 28an

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU497f5be8-eeec-4ef7-aff5-004d56102c95**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**